

Annapurna



Talde osoa biltzen duen argazki bakarra, Tansingen, 1950eko apirilaren 1ean. Zutik: Louis Lachenal, Jean Couzy, Marcel Schatz, Jacques Oudot, Lionel Terray, Maurice Herzog eta Francis de Noyelle. Eserita: Gaston Rebuffat eta Marcel Ichac. Besteak espedizioako sherpak dira.

50 urte eta gero hau

Mende erdia beteko da bihar Maurice Herzogek eta Louis Lachenalek Annapurna tontorra zapaldu zutela. «Himalayako konkistaren» abiapuntutzat jotzen da igoera hura. Frantzian ospakizun handiak izango dira horren karietara, nahiz eta EEBBetan kaleratu den liburu batek igoera ezbaian jarri eta Gobernuaren «iruzurra» salatu duen.

Ramon Oñasagasti




BIHAR beteko dira 50 urte Maurice Herzog eta Louis Lachenalek Annapurna tontorra zapaldu zutela. Himalayismoaren iragana eta geroa bereizi zituen bi frantziarren igoerak, eta «konkistatzaileen garaiari» hasiera eman.

Frantziarren espedizioa garai hartako alpinistatik indartsuenek osatu zuten. Alpeetako eskalatzailerik onenen selekzio bat izan zen taldea; Lionel Terray eta Louis Lachenal uztarririk indartsuena. Alpeetan inoiz izan den sokaldirik onena. Lehendabiziko igoera asko egin zituzten, garai hartarako pentsaezinak. Gaston Rebuffat luexka, Chamonixko gidarien taldekoa eta Alpeetako zeharkaldirik entzutetsuenen egilea. Jean Couzy eta Marcel Schatz, ohiko soka-lanunak hauek ere, eskalataile bikainak. Herzogek, Jacques Oudot medikuak eta Marcel Ichac zinemagileak osatu zuten taldea.

Hasiera batean bi asmo eraman zituzten: Dhaulagiri eta Annapurna. Bietatik sarbiderik erosoena eta aurpegiarik atsegina erakusten zuenari ekingo zioten. Kali Gandaki ibaiak sortutako bailaran, Tukuha herrixkan ezarri zuten kanpamentua, eta handik abiatzen ziren euren esplorazioak egitera. Herriarrek beste mundukotzat hartu zituzten mendizaleak; beste garai batzuk ziren. Espedizioan zehar, hala ere, berebiziko garrantzia izan zuten mendiko biztanleok. Dhaulagiriko hego-mendebaldeko ertzak eta hego paretak

Goi-goiko argazkian, Lachenal eta Herzog, elkarri laguntzen. Sherpak Gaston Rebuffat elurretan jaisten. Nepalgo maharaja Maurice Herzog espedizioburuari Gurken Eskuin Eskua ordenako garaikurra ematen eta bestean sherpak Herzog bizkarrean daramatela.



gorputzean sortu zien izuak eraginda, Annapurna aukeratu zuten. Edo Oparotasunaren Jainkosa Amak aukeratu zituen eurak?

Annapurnako ipar aurpegia honela deskribatu zuen Herzogek duela 50 urte: «Annapurnak bere sekretuak erakutsi dizkigu lehenengo aldiz. Bere ipar isuri handiosa, bere izotz errekekin argiz bete-beteen ageri da. Inoiz ez

«Ere...
ton...
ere...
idat...
libur...
inon...
jart...
gine...
«Gur...
Al fil...
irud...
«Ez...
ez na...
baitz...
mark...
lagun...
at